

DSBE: MURRIZKETA GEHIAGO ETA KRIMINALIZAZIOA
ELA 2017KO EKAINAK 6

1. SARRERA

Eusko Jaurlaritzak diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) aldatzeko oinarritzko dokumentua ezagutzera eman du. Egindako proposamena aztertzen hasi aurretik debatea behar bezala kokatu nahi dugu, zenbait datu emanaz eta berriro nabarmenduz egun EAEn daukagun gizarte-prestazio eredua ez dela nahikoa, eta bere estaldura zabaldu eta hobetu beharra dagoela.

2016ko Pobreziaren eta Desberdintasun Sozialen inguruko Inkestaren arabera, benetako pobrezia egoeran dauden 10 pertsonatik 3 DSBEaren babes sistematik kanpo dagoela. ELAren ustez honek adierazten du DSBEaren araudiak pobrezian dagoen jende asko ez duela babesten; beraz, edozein erreformatik erraztu egin beharko litzuke DSBEa jasotzeko orain indarrean dauden eskakizunak.

Esan beharreko bigarren kontua da DSBEaren zenbatekoak pobrezia-atalasetik behera daudela. DSBEa jasotzen dutenak ez dira pobreziatik ateratzen. DSBEak pobrezia egoera leuntzen du, baina gertuago dago ozta-ozta bizirauteko mailatik bizimodu duina izateko diru-sarreretatik baino. Hain zuzen, 2008an ezarri zen legea, berez nahikoa ez zena, DSBEaren zenbatekoari dagokionez ez dira aplikatzen ari. Batetik, 2012tik hona %7ko murrizketa aplikatzen ari da (hau urtero mantentzen da Eusko Jaurlaritzaren Aurrekontu Legean). Bestetik, DSBEaren zenbatekoa legean lanbidearteko gutxieneko soldataren (LAGS) arabera dago finkatuta. Haatik, EAJk, PSEk eta PPK babestu duten aurrekontuak DSBEaren zenbatekoari %1,6ko igoera aplikatu dio, eta ez LAGSak izan duen %8koa. Horrela DSBEaren zenbatekoa duela bederatzi urte ezarri zenarekiko %14ko murrizketa ari da jasaten; honek areagotu egiten du gure gizartean egoerarik larrienenan daudenen miseria. DSBEa erreformatzen hasi aurretik 2008ko legea aplikatu beharko litzateke, zenbatekoari dagokionez, eta hortik hobetzen hasi.

Azkenik, aipatzekoa da 2017ko apirilean EAEn 63.146 bizikidetza-unitatek jasotzen zutela DSBEa. Unitateok oso desberdinak dira beren artean. Hona datu batzuk:

- 15.706 pentsiodunak dira (%25).
- 12.321ek laneko diru-sarrerak dituzte (%20).
- 17.009 immigranteak dira (%27).
- 35.825 eskatzaile emakumeak dira (%57).

Datuok agerian uzten dute oraingo egoera sozioekonomikoa zein larria den. Langabezia, prekaritatea, pobrezia eta desberdintasun soziala hazten ari dira, eta horregatik gizarte-babesa hobetu beharra dago. Haatik, politikak tematu egiten dira murriztu beharrean, gastua gutxitzeko helburuan.

ELAk eta hainbat kolektibo sozialek salatu izan dugu iruzurra aitzakiatzat erabiltzen dutela laguntza jasotzen duten pertsonak kriminalizatu eta beren izena zikintzeko, botere politikotik zein komunikabide nagusien aldetik, zenbait kasutan kutsu xenofoboa ere badutelarik. Horrela ezkutatu egiten dira gizarte-prestazioen kudeaketan dauden benetako arazoak, bitarteko tekniko eta giza-baliabide eskasia, etab.

2. PROPOSATUTAKO NEURRIEN ANALISIA

Hauek dira proposatutako puntu larrienak:

a) DSBE bakarra ematea bizileku berean erroldatuta dauden pertsona guztientzat.

Orain etxebizitza baten DSBE jasotzen duten bi bizikidetza-unitate izan daitezke. Zehaztasun handiagorik ezagutu ez arren, murrizketa argia da.

Txostenak berak aitortu arren errealitate sozioekonomikoak eta krisiak aldaketa sozial handiak eragin dituztela -bizikidetza mota txikiago eta egongaitzagoak, harreman modu tradizionalen desagitea, behar egoeren gorakada, etxebizitza berean bi belaunaldi edo gehiago biltzea, etab.-, aldaketa honekin penalizatu egin nahi dute bizileku bakarrean bizikidetza-unitatea gainditzeko duen edozer, bizitzeko forma egonkorra ez bada. Horrela, txostenaren arabera, izatezko bizikidetza-unitateak (BU) ekiditen dira, hots, benetakoak ez direnak. Esaten da BU asko artifizialki zatikatzen direla, BUaren diru-sarrerara guztiak ez zenbatzeko; izan ere, zenbatuz gero, DSBEa ez bailitzateke emango.

Beraz, aditzera ematen dute ustezko praxi hori zabalduta dagoela, gure ustez oso bakana izanagatik ere (ez da ematen datu objektiboarik kontrakoa pentsarazteko), benetako behar egoerak badirela ezkutatuaz. Titularren %13a DSBE bat baino gehiago jasotzen den bizilekuetan dago erroldatuta. Lehenengo neurritik hasita adierazi nahi da erreforma hau ezartzen denean iruzurra eta engainua ekidingo direla. Hain zuzen neurri hau hedabide guztietako lerroburuetan nabarmendu dute.

Kontua da benetan kudeaketa eta araudi arazoek zailtzen dutela egoera bakoitzari eman beharreko erantzuna erabakitzea. Eta hau plazaratu den agiriak berak aitortzen du.

Neurri hau murrizketa bat da: Orain arte DSBEa jasotzen zuten BU asko, hemendik aurrera "atipiko"tzat joko dena, sistematik kanpo geratzen da (salbuespenak albuespen, eta aldi baterako), eta aurreztu egiten da neurri publizitario eta polemiko honekin, zeinak laguntza jasotzen duten pertsonak kriminalizatzen dituen.

b) Prestazioaren eta berarekin lotuta dauden osagarrien oinarritzko zenbatekoa aldatzen da.

BU guztientzako oinarritzko zenbateko komun bat ezarri nahi da, eta hortik aurrera osagarri sistema bat finkatu heldu bakoitzeko eta helduen ardurapean dauden bizileku bereko adin txikikoentzat.

Bada, honen helburu bakarra zenbatekoa murriztea da. Agiri honen hasieran aipatu diren murrizketak aplikatu ez balira indarrean dagoen araudiaren arabera, gaur DSBEaren gehienezko zenbatekoak hilean altuagoak lirateke proposatu dituztenak baino.

DSBErako proposatzen diren kopuru berriak 2008ko legeak onartutakoak baino baxuagoak dira. Horrela, DSBE jasotzen duen pertsona bakar batek 650 euro izango lituzte, LAGSEaren %88 (2008 legeak ezartzen duen kopurua) 726,44 badira, 76 euros gutxiago liratekeelarik.

Ondorengo taulek legeak ezartzen dituen kopuruen arabera orokorrean murrizketak

ematen direla adierazten dute. Proposatzen diren kopuru berriak gaur indarrean daudenak baino baxuagoak dira bi pertsonako BUen edo pentsionisten kasuan.

BUaren pertsona kopurua	DSBE 2017 € gehienez/hilean	Proposamena	Murrizketarik gabe
1	634,97	650	726,44
2	815,36	810	932,88
3	901,94	930	1.031,87
4	901,94	1.014	1.031,87

Pentsionistak

DSBE 2017	Proposamena	Murrizketarik gabe
721,56	710	825,5
901,94	870	1.031,87
974,10	1.000	1.114,42

Bizileku batean bi DSBE dauden salbuespeneko kasuetan zenbatekoak zeharo murrizten dira.

Areago, ezartzen da ezen *“gehienezko zenbatekoak ez dira kanpoko adierazle baten arabera finkatuko, esaterako LAGSE, IPREM edo beste batzuk, eta eguneratzeko adierazle honriekin ez da lotuko”*; bestalde, *“edozein familiarentzako gehienezko zenbatekoa 1.200 € izango da”*. Alegia, zenbatekoari buruzko erabakia urtero aurrekontuetan hartuko da, eta hau arriskutsua da.

Zenbatekoa aldatzea, batetik, ez eguneratzea eta topeak ezartzea, bestetik: bi neurrian xedea da gastua kontrolpean mantentzea eta gehitu ez dadin lortzea; agiriak berak hala aitortzen du: *“azken zenbatekoak doitu egin dira, ez dezaten gainditu egungo gastu testuingurua”*.

d) EAEn erroldatuta egon beharreko gutxieneko aldia aldatzen da.

DSBEa jasotzeko gutxienez erroldatuta egon beharreko aldia 3 urtetik 24 hilabetera murrizten da, baina soilik seme-alabak beren ardurapean dituzten BUen kasuetarako. Hau positiboa da, baina bestalde baita murriztaile eta partziala ere: laguntza jasotzen duten gainerako pertsonak diskriminatzen ditu; neurri hau proposatzeko esaten dute saihestu nahi dutela honelako laguntzak jasotzea beste arrazoirik ez duten pertsonak iristea, baina salaketa honetarako arrazoirik eta datu objektiborik ez da aipatzen.

e) Eskatzaileak EAEn bizilekua benetan duela egiaztatzeko moduaren aldaketa.

Prestazioa jaso ahal izateko derrigorrezkoa da erroldatuta egotea ez ezik benetan EAEn bizitzea ere. Orain arte eskatzailea benetan bertan bizi dela egiaztatzeko hainbat kontrol mekanismo erabili izan da, tokiko administrazioen laguntzaz, baina bertan *“ez bizitzearen susmoak”* oraindik badirenez, jasotzaile berriei sei kontrol neurri gehiago ezartzea

proposatzen da, eta dagoeneko laguntza jasotzen ari direnen gaineko egiaztatze presentzialeko sistema aleatorio bat.

Kontrola eta kriminalizazioa areagotzen dute, asmo bakarrarekin: DSBEa jasotzen duen jende kopurua gutxitzea.

f) DSBEa jasotzerakoan irregulartasunak daudela isla dezaketen erabilerak antzemateko aldaketak.

Hau ez da berria. Neurri honekin DSBE bidez jasotako diruaren erabilera okerra fiskalizatu nahi da. Irizpide guztiz subjektiboen arabera, administrazioaren abusuzko praxia babestu nahi da: berak erabakitzen du kasuan kasu egokia zer den eta zer ez.

g) Enplegurako pizgarri sistema hobetu eta arrazionalizatzeko aldaketak; DSBEa jasotzen dutenentzako edo iraupen luzeko langabeentzako enplegu-aukeren sorreran ohiko enpresak inplikatzeko aldaketak, eta laneratze eskubidea gauzatzeko zein zailtasunik handiena duten jasotzaileentzako enplegu-aukerak aktibatze aldaketak.

Lehenak lan-errenten osagarri den DSBEa aldatuko du, zenbatekoari dagokionez eta jasotzeko gehieneko epea 3 urtekoa zela zioen puntuan. Testuan badirudi ez dutela enplegua sustatu eta lanpostu duin eta kalitatezkoak sorrarazi nahi, baizik areago enplegu prekarioa eta lanaldi partziala indartu, xede politikoa gastua gutxitzea baita, lan-errenten DSBE osagarri gutxiago izan dadin.

Gainerako neurri pizgarriak betiko formulak dira, orain arte etekin urria eman izan dutenak. Hain zuzen, esan beharra dago laneratzea sustatzeko neurri oro positiboa dela, betiere pertsonen borondatea bortxatzen ez bada eta beren izaera eta bizimodua nahasten ez badu.

3. ONDORIOAK

- Gizarte-prestazio sistema egoki bat funtsezkoa da kohesio soziala izateko. Prestazio sistema hau izango litzateke gizarteko sektorerik ahulenekiko konpromiso kolektiboaren zutabeetako bat, hauek gero eta zabalagoak direlarik. Kontua da gizarte-prestazioak urriegiak direla biztanleriaren beharrezanein aurre egiteko. Oraingoan ere botere politikoak erreforma proposamen honekin sistema hobetu beharrean bi gauza nahasten ditu: sistema goraipatzeko propaganda (hura hobetzeko aukera baztertuta) eta gastua kontrolatu eta laguntzak jasotzen dituztenei jazartzeko praxia.
- Prestazioak murriztu egin dira azken aldian, eta datozen urteetan ere areago urrituko dituzte. Oraindik ere duina ez den zenbatekoak eta laguntza jaso ahal izateko eskakizunak zorrozteak, estaldurarik gabe uzten du gero eta kolektibo gehiago. Benetako pobrezian dagoen biztanleriaren %30,7ak ez du DSBERik jasotzen. Eta egoerak txarrera egingo du proposatutako erreformarekin.
- Jasotzaileen indefentsioa erabatekoa da. Legearen interpretazio subjektiboak eta irizpideen etengabeko aldaketek ez daukate zerikusirik arauaren izpirituekin. Betiko moduan, politika hauen ondorioak herritarrek pairatzen dituzte; areago, eurei leporatzen zaie egoeraren ardura, eta kriminalizatu ere egiten dituzte.
- Ohikoa den legez, erreforma proposamen honetan ez da inolako parte hartze

- sozialik izan.
- Ez zaie heltzen gizarte-prestazioen sistemak dituen gabeziei eta kudeaketa arazoei.